

Osasun Eskualde Oinarrizkoa


Barañain



Observatorio de Salud Comunitaria de Navarra
Nafarroako Osasun Komunitarioaren Behatokia



Fuente: SITNA-ISPLN



1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2016):	20.325 biztanle
Zabalera:	1,39 km ²
Nafarroa2000 zer eskualdetakoa:	Iruña (ikus mapa)
Udalerrak:	Barañain

2. Komunitatea eta osasuna

Barañaingo eskualde oinarrizkoan, biztanleriaren piramideak erraboi itxura du; biztanlerian 45etik 65 urte bitartekoak dira nagusi, eta apur bat feminizaturik ageri da adin tarte horretan. Barañaingo eskualde oinarrizkoa da zahartzarako mendekotasun indizea (%23,8), bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko emakumezkoen etheen portzentajea (%32,2) eta jaiotza tasa txikiak dituztenetarik.

Barañaingoa emaitza okerrenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean artean dago, amagandik adoskitzen duten hurrei dagokienez (%66,7) eta emakumezko jaioberrien bizi itxaropenari dagokionez (86,6 urte). Eskualdeko oinarrizkoko gainerako adierazleak batez bestekoan kokatzen dira, nonbait hor.

Nafarroa2000 zonifikazioan Barañaingo eskualde oinarrizkoa Iruñeko eskualdean baitago, aurrekoek gain, ondoko orrialdeko irudian agertzen dira

Iruñeari dagozkion adierazleak, bizimoduei, enpleguari eta ikasketa mailari buruzko inkestetatik aterak. Horien arabera, eskualdeko gazteen %39,1ek diote alkohol kontsumo intentsiboak egiten dituztela (*binge drinking*) eta %20,8k kontsumitzen dute tabakoa egunero.


3. Osasunerako baliabideak

Komunitatean osasunerako aktiboak daude, hau da, osasuna eta ongizatea mantentzeko eta sortzeko pertsonak, komunitateak eta herriek duten gaitasuna indartzen ahal duten baliabideak (salutogenesia).

[→ Ikus eskualdeko aktiboen mapa](#)

4. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira, adierazle sorta baterako, eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoaren aldean (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrikoen multzoaren aldera. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero ikus daitezke haien [banakako fitxak](#), Behatokiaren webgunean.



Adierazleen iturria: 1-2: Bikt. Mugimendu Nat.; 3: Zentsua; 4: Bikt. Aktiboaren Ink.; 5: Errenta Estat.; 6-8: Errola; 10-12: Naf. Gazteen Ink.; 13: Bizi-Baldintzen Ink.; 14-15: Botika Prest.; 9, 16-19: Oin.Osasun Lag.; 20-21: Naf. Osasun Pub. eta Lan Osas. Inst.

Iruñeko eskualdeko adierazleak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera (NEI). Irudian adierazten diren balioen kopurua: 3., 4. eta 13. adierazleetan, 7; 10-12. adierazleetan, 6.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzatik (bizimoduaren, gaixotze-tasaren, osasun sistemaren eta heriotza-tasaren adierazleetarako egindako kontrastea).

1. Jaiotze-tasa gordina (%); **2.** Urteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14-19 urteko ametan; **3.** 2. graduiko ikasketak burutu ez dituzten 20-24 urteko gazteen %; **4.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean, 4 hiruilekoko batez bestekoa; **5.** Etxeko guztien errentaren baturak pobreziaaren atalasetik behera egiten duenean, halako etxeetan bizi diren pertsonen % (kontsumo unitate bakoitzeko urteko diru-sarreraren medianaren %30, pertsonen banaketa hartuta. Pobreziaaren atalasea, 2015ean: 5.150 €); **6.** ≥ 65 urteko pertsonen %, 15-64 urteko pertsona guztien aldera; **7 eta 8.** Bakarrik bizi diren ≥ 80 urteko pertsonen %, adin horretan familiaren etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **9.** 170-190 egunetara partez edo osotara amagandik edoskitzen duten bularreko haurren %; **10.** Ohiko jardueran nahiz aisialdian jarduera fisiko urria edo batera egiten ez duten 14 - 29 urteko gazteen %; **11.** Azken 30 egunean kontsumo trinkoa edo betekada (*binge drinking*) egin duten 14-29 urteko gazteen % (4 EUE edo gehiago emakumeen artean, eta 5 EUE edo gehiago gizonezkoen artean, bi ordutik); **12.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten 14-29 urteko gazteen %; **13.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten ≥ 15 urteko pertsonen %; **14 eta 15.** Azken urtean, talde hauetarikoren bateko 3 ontzi gutxienez kontsumitu dituzten pertsonen tasa doitu: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (T. gordina: emakumezkoak 16,1 eta gizonezkoak 7,8); **16.** Obesitatearen prebalentzia doitu 0 - 5 urteko biztanlerian, OMEak haurren hazkunderako dituen patroien arabera definiturik (z-score $\geq +2$); **17.** 2 motako diabetesa duten ≥ 20 urteko pertsonen prebalentzia doitu (T. gordina: 6,5); **18.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatuaren neurketa (HbA1c) izan duen biztanleriaren %; **19.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala neurtu zaion biztanleriaren %; **20 eta 21.** Pertsona bat egungo heriotza-tasaren arabera ustez biziko den batez besteko urte kopurua.